

Hazi, Eraiki, Hezi: Arkitektura haur eta gazteen hezkuntzan, Euskal Herrian

Laburpena: Azken aldian bolo-bolo dabilen gaia da arkitektura, espazio publikoa, haurtzarora edota gaztarora nahastean dituenak. Nahiz eta Euskal Herrian ez izan ibilaldi luzeko lana, ez dira gutxi honen inguruan lanean dabiltzanak, ez eta aurrera daramatzaten ekimen eta egitasmoak ere.

Gako-hitzak: arkitektura, haurtzarora, gaztarora, hezkuntza, parte-hartzea.

Abstract: Architecture, public space, and childhood/youth have created a common intersecting ground that is receiving much attention lately. Although the Basque Country lacks a long work trajectory on the topic, many people are working on, and as many projects are directed towards that area.

Keywords: architecture, childhood, youth, education, participation.



Anartz Ormaza

Arkitektoa (TEO Arkitektura) eta UEUko Arkitektura sailburua

Bidaltze data: 2016/04/28

Onartze data: 2016/05/04

Orain arte (eta oraindik ere alor askotan), umeak eragile hartzailetzat hartu izan dira, irizpiderik edo erabakiak hartzeko gaitasunik izango ez balute bezala. Nekez garatuko dute, ordea, gaitasun hori, tresnarik ematen ez badiegu horretarako. Eta horretan helduok, badugu erantzukizun zuzena. Ez da bakarrik guztiok, beraiek barne, erabiltzen dugun hiria irudikatzeko orduan kontuan hartzen ez ditugula, baizik eta haiei zehazki zuzendutako eremuen diseinuari dagokionean ere, ez ditugula aintzat hartzen. Gizarte barneratzaile eta orekatu baten bidean lagunduko duten espazioak diseinatzeko orduan, ezinbestekoa da haurrak erabakietan egotea, eta modu aktibo batean egotea gainera. Oker gabiltza umeak geroa direla diogunean, baieztapen horrek orainetik at uzten ditu eta. Haurrak eta gazteak, oraina izan badira.

Ume eta gazteek, alde batetik, beren ingurua ezagutzeko eta, bestetik, horren gainean erabakitzeko ahalmena garatzeko behar dituzten tresnak, hots, hezkuntza espazialak ematen dituenak, nahitaez beraiekin batera jorratu beharrekoak dira. Badira gurean, horrek guztiak duen garrantziaz jabetu diren arkitektoak, eta badira urte batzuk zenbait talde eta pertsona, maila desberdinetan baina betiere arkitekturaren esparruan, hurrekin lanean hasi zirela.

Artikulu honen xedea da Euskal Herrian honen inguruan lanean ari diren pertsona, talde eta elkarten gaineko ikuspegia ematea, alor honetan gurean zer lan egiten den ezagutzera emateko. Izan ere, ez da gutxi egiten dena, eta erreferente ere bada gure mugetatik haratago.

Azken horretaz urtarrilean Madrilen egin zen *Arkitektura haur eta gazteen hezkuntzan*. Nazioarteko III. Topaketan ohartu

ginen. Bertan Euskal Herrian arkitekturaren eremuan haur eta gazteekin lan egiten dugun hainbat taldek egin genuen topo. Parte-hartzaile gisa joan ginen gutariko gehienok —TEO Arkitektura han izan zen—, baina antolaketan murgilduta zegoenik ere bazen tartean: Maushauseko lagunak, adibidez, hitzaldietatik aparte proposatu ziren mahai-inguruetako bat dinamizatzeko ardura izan zuten.

Lehen aldiz 2014an bildu ziren Madrilen honen inguruan lan egiten zuten zenbait pertsona. Aurreneko aldi hartan, hogeita bost bat lagun elkartu ziren, hamasei talde desberdinetatik eta estatuko hainbat lekutatik joandakoak; tartean Sinergia Sostenibleko Uxua Nafarroatik eta Kraftkoviako Mikel eta Vera Donostiatik. Playgrounds sarea sortu zen orduan, estatu mailan ume eta gazteen irakaskuntzan arkitekturaz baliatzen ziren arkitekto eta hezitzaileen taldea, alegia. Hurrengo urtean, Bartzelonan izan zen topaketa, eta orduan Maushauseko Carlos eta Anabel eta Arkitekto Maria ere batu zitzaizkien aurreko urtean Euskal Herriatik joandakoei. Guztira berrogei bat lagun batu ziren, hogeita zazpi talde ordezkatzeko. Argi zegoen jendeak honen gaineko interesa izan bazuela, eta gero eta gehiago zirela honen inguruan lanean zebiltzanak. Aurten berrehun lagunetik gora bildu ginen, hainbat talde eta elkarteren izenean eta estatuko txoko guztietatik gerturatuta. Euskaldunon presentzia ere, urterik urtera nabarmenagoa; bertan izan ginen aipatutako Maushaus, Gizaarte Elkartea, Ttipi Studio, Sinergia Sostenible, Arkitekto eta Teo Arkitektura, besteak beste. Gaur egun Playground sarea hirurehun kide baino gehiago biltzen dituen taldea da, tartean asko eta asko, euskal herritarrak.

Lehenago aipatu den bezala, asko dira jorratzen diren lan-



Irudia - "Moduluark" tailerra,
TEO Arkibirak.
Egilea - Anartz Ormaza
(TEO)

ildoak umeak eta arkitekturaren inguruan dihardutenen artean. Zenbait arkitektura langai hartuta hezkuntza-sistemara bideratzen dute beren lana, eta derrigorrezko hezkuntzako ikasle eta irakasleekin lan egiteko tresnak eta material didaktikoak garatzen dituzte. Hori da **Arkitenteren** kasua, adibidez, ibilbide zabala duena Bilbo inguruko eskoletako ume eta gazteekin lan egiten eta horientzako ikasmaterialak lantzen.

Asko dira arkitektura eta artearen inguruko gaiak lantzen dituzten tailer eta ikastaroak proposatzen dituztenak. **Maushaus** donostiarrak ditugu, beharbada, aitzindari horretan, urteak daramatzate-eta ildo horretatik tiraka. Oparoa da duten esperientzia eta zabala beraien lan-eremua. Donostiako laborategian garatzen dituzten tailerrez aparte, zenbait eskolotako ikasleekin ere ari dira lanean, bai eta zenbait erakunderekin ere: Bilboko Guggenheim Museoa, Arantzazu Gaur Fundazioa, Balenciaga Museoa, Tabakalera... Beraien atzetik honetan jardun dugunontzat, irakasle eta inspirazio-iturri izan dira zalantzarik gabe; Teo Arkitektura bizkaitarrentzat adibidez, edo Hondarrezko Gaztelua proiektua garatzen duten Ari Arkitekturako lagun zaraztarrentzat, besteak beste.

Dena den, badira Donostialdean lanbide hau partekatzen duten beste talde batzuk ere, arkitektura eta artearen alor ezberdinak jorratzen dituzten ekimenak proposatzen dituztenak. **Krafftoviak** edo **Hutsaren Etxeak**, adibidez, arkitektura eta artearen jakintzagaiak lantzeko tailer eta ikastaroak garatzen dituzte, bai Donostian bertan, bai eta beste zenbait lekutan ere. Azken horiek, adibidez, Iruñean ere egiten dituzte ikastaroak, eta zenbaitetan Azkuna

Zentroan, Oteiza Museoa edo Artium Museoa ere aritu izan dira hainbat gai jorratzen dituzten tailerrak garatzen.

Jasangarritasuna, orobat, zenbait beren lanean bereziki azpimarratzen duten gaia da, ume eta gazteekin aritzen direnean. Horretan aitzindari dira **Sinergia Sostenible** elkarteak osatzen duten lagun nafarrak. Jasangarritasunaren sustapen eta hedapenak beraientzat berebiziko garrantzia du. E-glú umeentzako arkitektura- eta jasangarritasun-tailerrak garatzen dituzte eta joan den urteko maiatzean «Haurrentzako arkitekturaren eta jasangarritasunaren hezkuntza» Green&Play I. Jardunaldiak antolatu zituzten Iruñean, egiten dituzten beste hainbat ekimenen artean. Baina ez dira umeekin egiten duten lana alor honetara bideratzen duten bakarrak. Lehen aipatutako **Ari Arkitekturako** kideek ere, beren Hondarrezko Gaztelua proiektuaren bitartez, bioeraikuntzan oinarritutako ekimenak lantzen dituzte, eta irizpide hauetan oinarritutako eraikuntzak ere eraiki izan dituzte hurrekin elkarlanean.

Azkenaldian denen ahotan dagoen gaia da parte-hartzea. Eta honetan ere, gutxinaka bada ere, hasi dira umeak merezi duten protagonismoa hartzen. Hirigintza-plangintzetan derrigorrezkoa da parte-hartzea, baina momentuz umeek ez dute, araudiari kasu egiten badiogu, beharko luketen presentzia. Izan ere, aipatu ere ez dira egiten. Hori horrela izanda ere, badira garrantzi honetaz ohartu direnak eta garatzen dituzten prozesuetan umeen parte-hartze aktiboa barneratzen dutenak. Eremu horretan txalotzekoa da **Urak Bide Taldeak** egiten duen lana, zenbait herritako HAOetako parte-hartze prozesuetan, edo mota anitzeko planetan (Irisgarritasun, Mugikortasun edo Espazio



Publikorako Planak, Plan Zuzentzaileak...), haurren esku-hartzea proposatu eta bermatzen dutelako, ume eta gazteekin hainbat dinamika landuz.

Araudia dela eta ez dela, zenbaitetan gazteen jardueretara zuzendutako ordenantzak idazten dira, espazio publikoaren erabilerari buruz, adibidez, haien iritzia kontuan hartu gabe. Sarritan hori izaten da, hain zuzen ere, *arazoa* konpontzeko idatzitako arauak, inolako eraginkortasunik ez izatearen arrazoiak. Baina gutxi batzuetan, aukera ematen zaie iritzia emateko eta araudiaren gainean proposamenak egiteko. Eta horrela da **Parte Hartze Positiboa-Herriarren Hirigintza** talde bizkaitarreko kideak garatzen ari diren ekimenean. Izan ere, Durangoko gazteekin ari dira parte-hartze prozesua lantzen, herriko gazte-lokalen ordenantzaren definizioan erabakigarria izango dena.

Haurrek erabiltzen dituzten espazioak diseinatzeko orduan, haien parte-hartzea eta esku-hartzea ahalbidetzen dituzten egitasmoak ez dira dagoeneko hain arrotzak. **Ttipi Studiok** garatzen duen Elkartoki proiektuaren kasua adibidez, bereziki interesgarria da. Algortako San Nikolas ikastolako umeekin garatzen ari diren proiektua da, eta bertan eskolako patioaren eraldaketa fisikoa proposatzen dute, betiere umeekin batera lantzen den eta *Design Thinking*ean oinarritzen den behetik gorako sorkuntza-prozesu baten bitartez.

Ikus dezakegun legez, hainbat dira gai honen inguruan eta esparru ezberdinetan aurrera eramaten diren ekimenak. Askotan gertatzen da edonola ere, beste alor anitzetan izaten den bezalaxe, bakoitzak bere aldetik egiten duela lan, batzuen eta besteen arteko harremana urria izanik. Aldatzen doan joera da hori, hala ere, eta **TxikiArk** ekimena horren adibide garbia da. Badira bata besteetatik ikasi, metodologiak elkarri banatu eta sarea ehuntzearen onuraz eta horrekin batera arkitektura eta haurren inguruan egiten den lanaren ikusgaitasunean duen eraginaz jabetu direnak.

Ipuinaren munduaren bitartez adin txikieneko hurrekin tailerrak egiten esperientzia zabala duen **Lro Detallereseko** Elena izan zen bat-egite horren sustatzaile sutsua. Haren proposamenari kasu eginez, laster ginen harremanetan umeekin eremu ezberdinetan lan egiten genuen pertsona eta taldeak, batez ere bizkaitarrak, tartean donostiarren bat badago ere. **TEO Arkitekturako** kideok adibidez, Teo Arkibirak egitasmoa dugu lan ildoetako bat, eta horren bitartez Bizkaiko herri batzuetako umeekin arkitektura eta sormenaren inguruko gaiak lantzen ditugu era askotako tailerretan. **Gizaarte Elkarteak**, bere aldetik, artearen alor ezberdinak eta hezkuntza uztartzen dituen jarduerak jorratzen ditu.

Elkarlanean aritzeak, aurrean aipatutako abantailaz haratago, eskala handiagoko proiektuetan jarduteko aukera ematen du ezinbestean. Eta horrela egiaztatu izan du TxikiArkek¹, lehenengo urtean Santanderreko Createctura eta Ephemera Play taldeekin batera garatutako JugArk egitasmoan. Horren bitartez, Bilbo eta Santanderreko hainbat plaza eta txokotan esku hartu zen, umeekin eta haien familiekin batera hainbat eta hainbat hiri-instalazio iragankor eraikiz. Sormenaren eta jolasaren bitartez hiri deskubritzeko aukera bikaina, bai eta hiriak ematen dituen aukera anitzez konturatzeko ere. Espazio publikoa eta gizarte-kohesioaren inguruan ere lanketa egiteko aukera izan du TxikiArkek azkenaldian, Andrea Ruiz antropologoarekin elkarlanean: EHAEoren laguntza bati esker, Txikimaps ekimena garatzen zuen Caritaseko umeekin. Joan den urtean, Basauri, Galdakao, Santutxu (Bilbo) eta Gurutzetako (Barakaldo) taldeetako umeekin jorratu ziren zenbait ekintza haien auzoetako espazio publikoan, eta aurten, Caritasen laguntzaz beste hainbeste egingo da Otxarkoaga (Bilbo), Erandio eta Algortako (Getxo) hurrekin. Aukera paregabea, umeak

¹ TxikiArk talde irekia da, eta momentuz horren parte dira Bear Architecture, Lro Detalleres, Gizaarte Elkarteak, Kraftkovia, PH+ Herriarren Hirigintza, TEO Arkitektura eta Ttipi Studio.



Ezkerreko irudia - "Triangelua, planotik bolumenera" tailerra, Getxoarte 2015. Teo Arkibirak. Egilea - Anartz Ormaza (TEO).
 Ondoko irudia - Galdakaoko Caritaseko umeen beraien auzoaren gaineko proposamena, Txikimaps proiektua. TxikiArk: Bear Architecture eta Lro Detalleres.
 Egilea - "Ametzak" taldea. Galdakaoko Caritaseko umeak.
 Goiko irudia - Umerik gabeko kaleak, etorkizunik gabeko hiriak. Egilea - Celia Imaz (PH+).

bere hiri, herri edo auzoan esku hartu ahal izateko tresnez baliatzeko. Honetaz guztiaz aparte, laster Kraftkoviaren ekimenari esker Jolastour egitasmoa garatzeko aukera izango da Donostiako umeekin, alde zaharreko hainbat txokotan.

Argi dago haur, gazte eta arkitekturaren inguruan, eta horien hezkuntza espazialaren inguruan, lan egiten dela gurean; askotariko lana, oparoa eta aberatsa. Lan handia dago ordea egiteke, eta bide batzuk oraindik ere ibiltzeke daude. Zenbait erakunde (museo, kultur zentro...) horren garrantziaz jabetu dira, beren egitarauetan arkitekturaren inguruko umeentzako ikastaroak eskainiz, baina beharrezkoa da umeen derrigorrezko hezkuntzan eskumena duten erakundeak honen garrantziaz ohartzea, garatzen diren tresnak material pedagogiko moduan baliatu ahal izateko. Hezkuntza paradigma den Finlandiara begira jartzen garenean (alor honetan ere eredu baitira, Arkki edo Lastu bezalako ume eta gazteentzako arkitektura eskolak baitituzte hezkuntza-sisteman barneratuta), agertoki hori urrunegia egiten zaigu, amets eskuraezin. Baina baditugu gertuko ereduak, Galiziako Proxecto terra proiektua adibidez: hamabost urte martxan daraman egitasmoa da, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleentzako materialak garatzen dituen, bertako irakasleekin batera. Holako zerbait gurean proposatzeko saiakeraren bat edo beste egin izan den arren, ez du emaitza emankorrik izan, ziur asko orain arte bakarka jarduteko joera izan delako nagusi. Masa kritikoak ematen duen indarrak eta horrek izan dezakeen eraginaz baliatu beharko genuke, behingoz honek behar duen bultzada emate aldera. Beharbada helburu hau lor daitekeena da, denok elkarlanean ahalegintzen bagara.

///